



ASPACE BIZKAIA

GARUN PARALISIAREN MUNDU EGUNAREN MANIFESTUA 2021

Laguntza-premia handiak.
168 ordu astean.
Denbora guztian.
Bizitza osoan.

Urtero, urriaren 6an
Garun Paralisiaren Mundu Eguna ospatzen dugu.
Mundu egunetan dagokion mundu eguneko gaiaren inguruko
eskubideak **aldarrikatu** edo defendatzen ditugu.

ASPACE Mugimendutik manifestu hau argitaratzen dugu
Gizarteak garun-paralisia eta
laguntza-premia handiak
dituzten pertsonak ezagutu ditzan.
Halaber, gure bizitzan zehar
egunez egun behar ditugun laguntzak
zein diren jakin dezaten.

Espainian garun-paralisia dugun 120 mila pertsona bizi gara.
Gehienok beste pertsona batzuen laguntza asko
behar izaten dugu egunero,
goiz, arratsalde eta gauez.

Jaiki eta gure burua garbitzeko laguntza behar dugu.
Jantzi, jan eta edateko.
Era berean, laguntza behar dugu
mugitu edo esertzeko.
Igeri egin, paseatu edo jolasteko.
Atsedean hartu, sentitu eta komunikatzeko.
Parte hartu eta erabakitzekeo laguntza behar dugu.
Denetarako.
Denbora guztian.
Bizitza osoan.

Aldarrikatzea:
Eskubidea duzun
hura eskatzea

40
1978-2018

ASPACE BIZKAIA

Julio Urquijo, 17 Ionja. 48014 Bilbao
Tfno.: 94 441 47 21 - Fax: 94 441 46 79

CIF: G 48091458
www.aspacebizkaia.org

ENTIDAD DECLARADA DE UTILIDAD PÚBLICA
24 de enero de 1982



ASPACE BIZKAIA

Laguntza horiek lagungarri dira garun-paralisia duten pertsonentzat zer nahi dugun adierazteko eta gizartean parte hartzeko. Garun-paralisia dugun pertsonok behar ditugun laguntzak jasotzen ez baldin baditugu gure eskubideak **urratu** egiten dira.

Gure familietan, amak izan ohi dira garun-paralisia eta laguntza-premia handiak dituzten pertsonak zaintzen dituztenak. Zaintza horiek esfortzu ekonomiko eta psikologiko handiagoa eskatzen dute familia horientzat.

Laguntza-premia handiak ditugun seme-alabak hazten garen heinean, gure familiak bakartuago sentitu ohi dira eta etorkizunari beldurra izaten diote. Gure gurasoak beldur dira, zaindu ezingo gaituzten eguna iritsiko dela dakitelako. Laguntza-premia handiak ditugun seme-alabak beldur gara, izan ere, badakigu, egunen batean gure gurasoak ez direla gure alboan egongo.

Laguntza-premia handiak ditugun pertsonok parte hartu nahi eta ahal dugu. Laguntza egokiekin gizartean parte har dezakegu.

Parte hartzeko laguntzaren adibide bat **laguntzaile pertsonala da**. Hari esker, laguntza-premia handiak ditugun pertsonok gure erabakiak hartu eta adierazi egiten ditugu.

Urratzea:
kaltetzea

Laguntzaile pertsonala: pertsona batek behar dituen premia eta zaintza guztiak artatzen dituen laguntzailea



Gizartea ez dago prest garun-paralisia dugun pertsonok parte har dezagun. Ezagutzen ez gaituztelako eta **aurreiritziak** dituztelako gurekiko. Aurreiritzi horien ondorioz gure bizitza zailagoa da eta, baita gure familiena ere.

Gizartean **irisgarritasunik** ezaren ondorioz garun-paralisia dugun pertsona asko ezin gara joan-etorrian ibili. Edo laguntza-premia handiak ditugun emakume askok ezin dugu mediku ginekologora joan. Hori horrela da kontsultak ez daudelako guretzat egokituta.

Guretzat eta gure familientzat eskatzen dugu:

- Gure izatea eta gure **desgaitasun anitza** onartzea. Halaber, arretarekin lotutako gure premiak eta parte hartzeko gure eskubidea.

- Gure familientzako laguntza sozial eta ekonomikoak areagotzea. Gure familiek arazo ekonomiko eta psikologiko gutxiago izan ditzaten.

- Arreta, laguntza eta zaintza zentro eta zerbitzuetan plaza kopurua areagotzea gure bizitza osoan zehar.

Baliabide horiek **funts publikoen** bidez **finantzatu** behar dira. Modu horretan, gure familiek ez dituzten baliabide horiek ordaindu behar.

- Gizartean irisgarritasun unibertsala sustatzea. Bereziki, irisgarritasun kognitiboa.

Aurreiritzia:
Zerbaiten edo norbaiten inguruko ideia eta iritzi negatiboa hura ezagutu aurretik

Irisgarria: Erraz sartzeko edo erabiltzeko moduko leku edo espazio bat.

Desgaitasun anitza:
Desgaitasun ugari.

Finantzatzea:
enpresa edo proiektu baterako dirua ematea.

Funts publikoak:
gobernutik datorren dirua, sarritan zergen bidez, jendarteari laguntzeko erabiltzen dena.



ASPACE BIZKAIA

- Laguntzaile pertsonalari buruzko arau publikoak garatzea.
Arau horietan laguntzaile pertsonalarentzat behar beste ordu barneratu behar dira.

Gainera, laguntzaile pertsonala eta zaintza eskaintzen duten bestelako laguntzak bereizi behar ditu. Horrela, behar ditugun bestelako laguntza batzuk izan ditzakegu, laguntzaile pertsonalaz gain.

- Garun-paralisia duten emakumeen aurkako **diskriminazioa** baztertzeko ekintzak bultzatzea.
Emakumea izateagatik eta desgaitasun bat izateagatik.

ASPACE Mugimenduko erakundeak, gizartera irekita gaude. Gure errealitatea partekatu eta parte-hartze eta inklusiorako espazio irisgarriak sortu nahi ditugu. Gure ahotsa eta gure familiena entzuteko espazioak.

Lortzen baldin badugu, gizarte bidezkoago, anitzago eta parte-hartzaileago bat egingo dugu. Manifestu hau da lehendabiziko urratsa. Jarrai gaitzazue bidean.

ASPACE konfederazioa
Madril 2021eko urriak 6.

Irakurketa errazera egokitutako testua ASPACE konfederazioaren eskutik. ASTRAPACEK baliozkotua.

Diskriminatzea:

Pertsona bati tratu okerragoa ematea desgaitasun bat izateagatik, beste herrialde batekoa izateagatik edo sinesmen